*Hastapenean AOBE baten sortzeko borondatea herriarena izan da eta 2017ko urtarrilaren 1etik goiti Euskal Hirigune Elkargoak du, eskumena hartzearekin batera, urraspide hori bere gain hartu eta sostengatu.*

*AOBEren diagnostikoa bidean da, eta laster eremuaren mugak eta helburuak proposatuko ditu.*

*Gero proposamen hori tokiko AOBE batzordean aurkeztuko da. Batzorde horrek AOBEen segipena egiten du eta honakoek osatzen dute: frantses estatua, herria, Euskal Elkargoa eta ondare gaietako adituak. Ondotik, hitzartze bat antolatuko da herritarrekin, bilkura batean aurkezpen bat eginez.*

*Behin txostena onartu-eta, Herri Biltzarrari aurkeztuko zaio bere iritzia eman dezan eta ondotik Elkargoko batzorde nagusiak du deliberatuko.*

*Proiektua Akitania Eskualdeko Ondare eta Leku sailkatuen Batzordeari eta bestelako aginteei aurkeztuko zaie azterketarako, eta inkesta publikoa eginen da.*

*Inkesta publiko horren ondotik, eta menturaz txostenean izanen diren aldaketak kontuan izanik (herritarrenak eta inkesta komisarioarenak), proiektua eskualdeko prefetari igorriko zaio bere onespena eman dezan eta azkenik herri biltzarrak eta Elkargoko batzorde nagusiak deliberatuko dute.*

*Behin AOBE onartu eta, Ondare Gune Aipagarri (Site patrimonial remarquable) izendatuko da, hots AOBE-ren izen berria.*

*Zer ondorio Kanbo eta kanboarrentzat?*

*Eraikinetan, baratze eta lorategietan, patioetan edo bestelako arkitektura elementuetan agerian dena moldatzeko lanak eginen badira, lan horiek araudi berezi bat segitu beharko dute eta Frantziako Eraikinen Arkitektoaren aurretiko baimena erdietsi.*

*Frantses estatuan helbideratuak diren zerga ordaintzaileek dirulaguntzak eta zerga abantailak ukan ditzakete eraikin baten osoki berritzeko edo kanpoko elementuen berritzeko.*

*Zer leku dute herritarrek?*

*Proiektuaren aitzinamendua herriaren webgunean ikus dezakezue. Erregularki eguneratzen dugu. Herri aldizkariak ere horren berri emanen du.*

*Herriko etxean atzemanen dituzue, batetik prozeduraren elementuak, eta bestetik herritarren oharren biltzeko kaier bat.*

*Bilkura publiko bat antolatuko dugu 2021eko lehen erdian. Laster ukanen duzue bilkura horren dataren berri.*

*Kontaktua*

- *Kanboko Herriko Etxea:*
  *Herriko Etxeko etorbidea*
  *64250 Kanbo - 05 59 93 74 30*
- *Euskal Hirigune Elkargoa:*
  *Foch hiribidea, 15 - CS 88 507*
  *64185 Baiona - 05 59 44 72 72*





# Aménagement du plateau de Marienia

L'acte 3 de la zone d'Assantza Borda vient de débuter. Comme nous l'avions annoncé dans notre programme et dans le respect des dispositions du Plan Local d'Urbanisme, un projet verra le jour prochainement sur ce secteur. Porté par l'opérateur Bouygues construction, ce projet se veut résolument empreint de mixité. Tous les aspects qui fondent la démarche de développement durable ont été appréhendés et intégrés dans ce programme. Un soin particulier a été apporté sur l'intégration paysagère du projet avec la création d'espaces boisés en périphérie, qui auront également pour fonction d'assurer le stockage provisoire des eaux de pluie, et d'offrir un espace dédié à des jardins partagés.

Ce projet accueillera une centaine de logements, dont 50 % de logements locatifs sociaux portés par l'Office 64. Edifié autour d'une voie centrale publique qui offrira à terme une nouvelle desserte à l'ensemble du quartier. Ce projet comportera trois bâtiments collectifs (deux à vocation locative, et un à l'accession), vingt-quatre constructions mitoyennes  et trois constructions individuelles. Cinq logements situés dans ces constructions seront mis en location par l'Office 64, et trois seront vendus via le principe du bail réel solidaire (BRS). Sans rentrer dans le détail, nous pouvons dire que ce dispositif permettra aux futurs ménages de se porter acquéreurs des murs, le foncier restant de la propriété de l'Office 64. En dissociant le bâti du foncier, cet outil permet à des acquéreurs d'acheter un bien à moindre coût et à la collectivité de pérenniser dans le temps, la vocation sociale du logement.





## MARIENIA ORDOKIAREN ANTOLAMENDUA

*Assantza Borda eremuko antolamenduaren hirugarren urratsa abiatu berri da. Gure programan erran genuen bezala, eta tokiko Hirigintza Planarekin adostasunean, eremu horretan proiektu berri bat izanen da laster. "Bouygues construction" promotoreak eramanen duen proiektu horren ezaugarrietako bat mistotasuna izanen da. Halaber, proiektuak garapen iraunkorraren urraspideak segituko ditu. Arreta berezia eman zaio proiektua ingurunean ongi egokitzeari, inguruan zuhaiztiak ezarriz euri uren atxikitzeko, eta baratze partekatuak ere izanen dira.*

*Proiektu horretan, "Office 64" erakundeak, sortuko diren etxebizitzen %50 izanen du bere esku, etxebizitza lagundu bezala alokatzeko. Proiektuak, bide zentral baten inguruan hiru eraikin kolektibo izanen ditu (bi alokatzeko eta bat erosteko): elkarri datxizkion hogeita lau etxe eta banakako hiru etxe. Eraikuntza horietako bost etxebizitza Office 64-k alokatuko ditu, eta hiru saltzeko izanen dira elkartasuneko errenta errealaren bidez (BRS). Xehetasunetan sartu gabe, eta sinpleki esplikatzeko, erran dezakegu erosleak etxebizitzaren hormak erosiko dituela, baina lur saila Office 64-ena izaten segituko dela. Eraikina eta lur saila bereiztearekin, erosleak bere etxebizitza merkeago erosteko parada izanen du, eta aldi berean segurtatzen dugu etxebizitza horiek luzaroan funtzio soziala atxikiko dutela.*



Dans le respect des orientations d'aménagement figurant dans le PLU, nous avons poursuivi, dans le cadre de ce projet, plusieurs objectifs à savoir :

- diversifier les façades des constructions et éviter l'homogénéité : création de garage annexe pour 7 maisons T5, ajout de balcons pour 8 maisons, un abri pergola voiture pour une maison, de la pierre sur 4 maisons, baies vitrées sur certaines maisons. . .Chaque maison est ainsi unique en modèle et/ou couleur ;
- adapter le projet à la topographie du terrain et ainsi décaler les constructions les unes par rapport aux autres, afin de casser cette impression de linéarité et de permettre des voiries annexes moins droites (pour limiter la vitesse) ;
- offrir un bâti de qualité en visant le label HQE (Haute qualité environnementale) avec une offre en panneaux solaires (auto-consommation), chauffage au bois pour l'habitat individuel, la production d'eaux chaudes via des ballons thermodynamiques... ;
- intégrer les mobilités douces (voie piétonne) et le transport collectif (arrêt navette).

L'accès à cette zone sera assuré par la création d'un tourne à gauche, aménagement qui aura également pour intérêt de faire réduire la vitesse des véhicules en entrée de Cambo.

Une particularité de ce projet réside dans l'aménagement des espaces privatifs situés devant les maisons qui seront traités en espace ouvert sans clôture. Ce concept « dit à l'américaine » contraire à nos modes de fonctionnement a séduit dans le passé par l'émergence de lieux plus conviviaux. Si nous pouvons retenir une leçon du COVID, alors faisons de nos quartiers des lieux de "mieux vivre ensemble".

Les photos 3D, ci-dessous, simulant l'intégration de ce projet vous donnent un aperçu de la physionomie future de cette sortie. Une maquette est mise à disposition à la mairie pendant le mois de janvier (aux heures d'ouverture) afin de faciliter la compréhension du projet, de ses enjeux et de son intégration dans l'environnement.





*THP-n ematen diren antolamendu norabideak segituz, proiektu honetan hainbat helbururi atxikiak gara:*

- *eraikinetako fatxaden aniztasuna, denak berdinak izan ez daitezen: T5 neurriko 7 etxerentzako garajeak eraikiko dira ondoan; 8 etxetan balkoiak gehituko dira; etxe batean pergola moduko autoentzako babeslekua; 4 etxetan harriak ezarriko dira; berin handiak etxe batzuetan... honela, etxe guziak, formaz eta kolorez bereziak izanen dira.*
- *proiektua topografiari egokituko dugu, etxeak ez lerrokatuz, bide nagusiaren alde bakoitzeko bideak zuzenak izan ez daitezen (abiadurak apaltzeko),*
- *HQE (Haute qualité environnementale) labela eskuratzeko kalitatezko etxebizitzak, panel fotovoltaiko eskaintza batekin (auto kontsumorako), banakako etxeetan egur berogailuak ezarriz eta ur beroa ekoizteko biltegi termodinamikoak ezarriz...*
- *ibilmolde goxoei eta garraio publikoari leku eginen diegu (oinezko bideak; joan-jilearen geldilekua).*

*Eremu horretara sartzeko, bide nagusian ezkerrera itzultzeko eremu bat eginen dugu, eta horri esker Kanborako sartze horretan abiadura moteldurko dugu.*

*Proiektu horren berezitasunetako bat, eremu pribatuen antolamenduari lotua da: etxeen aitzinaldean loratégiak izanen dira baina harresirik gabe; irekiak izanen dira. Gure ohituretan sartua ez den "eredu estatubatuar» horri esker ohartu gara jendeen arteko harremanak goxatzen zirela. COVID-19az zerbait atxikiko badugu, saia gaitezen gure auzoak atseginago bilakatzen.*

*Honen ondotik dituzue proiektuaren 3D argazkiak, zer itxura izanen duen irudikatzeko. Urtarril osoan maketa bat izanen duzue ikusgai herriko etxean (zerbitzu ordutegian), proiektua hobeki ulertzeko, eta bereziki bere ingurunean nola kokatzen den ikusteko.*







# Les travaux de Voirie et Réseaux

Les évènements de l'année 2020 ont quelque peu perturbé le bon déroulement de notre programme d'investissement. Toutefois, à la suite des travaux d'enfouissement des réseaux EDF basse tension , PTT, Eclairage et de reprise de la ligne haute tension qui se sont opérés sur le chemin de la pouponnière, nous allons entamer les travaux de reprise de chaussée en prenant en considération des observations formulées lors de la réunion publique. Ces travaux vont également inclure l'impasse « maldan » au regard de l'état de vétusté avancé de cette voie.

Suite aux travaux de reprise du réseau d'eau potable sur le chemin d'Agnanekoborda par la CAPB, nous allons réaliser les travaux de reprise de l'enrobé avec la pose de bordures et grilles caniveaux pour canaliser les eaux de pluie.



Nous avons également participé aux travaux de reprise de l'allée Edmond Rostand, sur la section chemin des tilleuls – entrée du collège Saint-michel Garicoitz, en cofinançant les trottoirs avec le Conseil Départemental. En centre-ville, les travaux sont toujours des moments délicats, et nous mesurons leur impact sur le fonctionnement des commerces. C'est pourquoi nous restons à l'écoute des commerçants pour tenir compte de leurs suggestions, mais également pour les informer des évolutions du chantier pouvant impacter leur activité.

Pour le futur rond-point au droit du chemin de « Paskaleku », le retard de sa réalisation est imputable aux démarches fastidieuses d'acquisitions foncières. Gageons que ces démarches puissent aboutir en 2021 afin de concrétiser ce projet ô combien nécessaire à la sécurisation de ce carrefour, que ce soit pour les véhicules ou les déplacements doux.

Pour l'année 2021, nous allons engager les premières réflexions sur l'aménagement de la route des écoles au Bas-Cambo, et la route de Macaye. Ces études feront l'objet d'une évocation avec les riverains à l'occasion d'une réunion publique.

Comme bien souvent, le budget alloué aux travaux est une donnée essentielle pour élaborer un programme d'investissement. Ce programme sera arrêté par notre équipe en début d'année prochaine.

## BIDEETAKO ETA SAREETAKO LANAK:

*2020ko gertakariek gure inbertsio planak aldatu dituzte. Halere, Pouponnière bideko elektrizitate, telefono, argiteria sareen lurperatzeko lanen ondotik, galtzada berriz egiteko lanak abiatuko ditugu, bilkura publikoan egin ziren oharrak kontuan hartuz. Lan horiek "maldan" karrika itsuan ere eginen ditugu, biziki hondatua baita.*

*Euskal Elkargoak Agnanekoborda bidean egin dituen ur edangarri sareko lanen ondotik, mundruna berrituko dugu eta euri uren bideratzeko bazter eta baheak ezarriko ditugu.*

*Edmond Rostand hiribidean ere galtzada berriz egin dugu, "les tilleuls" eta Saint-Michel Garicoitz kolegioaren artean. Espaloiak Pirinio Atlantikoetako Departamenduarekin erdizka ordaindu ditugu. Hiri erdian obrak egiten direnean beti trabak sortzen dira eta saltokientzat eragiten dutena neurtzen dugu. Horregatik, merkatarien oharrak entzuten ditugu, ahal bezain bat kontuan hartzeko, eta halaber beren jardunean eragina izan ditzaketen obren berri ematen diegu.*

*Paskalekuko bideko biribilguneari dagokionez, lanek beranta hartu dute, lurren eskuratzeko urraspideak zailak eta luzeak baitira. Espero dugu 2021erako burutuko ditugula, ezinbestekoa baita bidegurutze horren segurtatzea, bai ibilgailuentzat baita oinezko edo bizikletentzat ere.*

*2021ean Behereko Plazako eskolen bidea berriz egiteko gogoetak abiatuko ditugu, eta ber gauza Makeako bidearentzat. Bistan da, proiektu hauek auzokoekin aipatuko ditugu bilkura publikoetan.*

*Badakizue gehienetan lan horien egiteko aurrekontua funtsezkoa dela holako inbertsio programa batean. Programa heldu den urte hastapenerako bururatua izanen da.*

# Travaux bâtiments

2020

**En plus de la rénovation de l'église, l'année 2020 a été marquée par :**

- La réfection du sol de la salle des sports ;
- La réfection et le remplacement des faux-plafonds de l'école primaire du Haut-Cambo (travaux réalisés sur 2020-2021), en favorisant la mise en place d'un nouvel isolant plus écologique en panneaux fibre de bois.

## ERAIKUNTZA LANAK

*Elizaren zahar berritzearen bukaera eta gehiago 2020an honakoak egin ditugu:*

- *Kirol gelako zoruaren eraberritzea*
- *Kanboko lehen mailako eskolako sabaiaren eraberritzea (2020-2021 artean eginen diren lanak) zur-zuntzeko isolamendu material ekologikoagoarekin.*

2021

**L'année 2021 verra :**

- La construction d'un nouveau local pour la Croix Rouge : Celui-ci sera implanté à l'angle du parking du Parc Saint-Joseph, près de la gendarmerie. L'architecture de ce bâtiment sera totalement inspirée de la Halle d'animation Bernadette Jougleux. Une étude sur la pertinence de la pose de panneaux photovoltaïques sera également réalisée ;



- La poursuite de la mise en accessibilité des bâtiments publics aux personnes à mobilité réduite ;
- La réfection de certaines façades et la mise aux normes ERP de la villa Arnaga ;
- construction de 2 courts de tennis couverts.

*2021ean:*

- *Gurutze Gorriarentzako lokal berria eginen dugu: Jendarmeriaren ondoko San Josepe parkearen kantoian izanen da. Eraikin horren arkitektura Bernadette Jougleux animazio aretoaren antzekoa izanen da. Panel fotovoltaikoak ezartzeko ikerketa lana eginen dugu.*
- *Mugikortasun urriko pertsonentzako egokitzapenak egiten segituko dugu eraikin publikoetan.*
- *Arnaga etxearen kanpoko horma batzuen eraberritzea eta PIE (Publikoari Irekiak diren Eraikinak/ERP) arauetara egokitzea*
- *2 tenis zelai estaliren eraikuntza*

# Servir l'interet général

Vous avez été près de 47 % à voter pour la liste NAHI DUGUN HERRIA ( La commune que nous voulons) et vous en remercions.

Notre équipe renouvelée poursuit le travail effectué depuis 2014 et sa mission est dirigée vers l'intérêt général.

**Covid 19: La prise de conscience**

Cette crise que nous subissons toutes et tous nous a fait prendre conscience de notre fragilité et notre dépendance.

L'individualisme, la surconsommation, la mondialisation, le tout-voiture sont des idéaux du passé.

Cette période difficile est aussi le moment d'une prise de conscience : les circuits courts, la préservation des terres nourricières, la mobilité partagée, l'entraide et la solidarité qui sont les piliers de notre programme trouvent aujourd'hui une résonance éminemment actuelle. Ces valeurs, taxées d'utopie il y a peu, nous permettent de surmonter la crise.

**La solidarité**

Fort.e .s de votre confiance et malgré les contraintes liées à la pandémie, nos 7 élu.e.s continuent à défendre les thèmes essentiels de notre programme et sont force de proposition durant cette nouvelle mandature.

Notre action toujours motivée par le bien vivre ensemble nous conduit encore plus à veiller à ce que l'équipe majoritaire ait, par le biais du CCAS, une politique sociale efficiente propre à ne laisser personne au bord du chemin.

Nous intervenons auprès du CCAS pour demander l'augmentation de l'aide à la cantine, la mise en place d'une aide pour l'accès aux loisirs des jeunes et des enfants, la mise en place rapide d'un logement d'urgence, la création d'une mutuelle communale

Nous sommes toutes et tous sous la coupe des autorisations et interdictions successives, cependant nous vous encourageons à agir :

- en achetant localement afin de maintenir l'activité commerciale et artisanale locale garant d'un village dynamique et vivant
- en préférant les produits issus de l'agriculture locale à taille humaine
- en étant attentifs aux personnes qui nous entourent, en refusant l'indifférence face à des situations d'isolement, de grande précarité, de violences sur les femmes ou sur les enfants.

**L'urbanisme en question**

Plateau de Marienia, la suite…

L'approbation du PLU juste avant les élections a suscité de nombreuses réactions et oppositions à l'urbanisation du plateau de Marienia. Quatre recours ont été déposés au tribunal administratif afin de préserver ces terres agricoles et ce paysage incomparable d'entrée de ville!

Un gros projet immobilier s'apprête à voir le jour alors que le jugement n'est pas encore rendu…. le combat n'est pas perdu et nous poursuivons notre action dans la procédure en cours.

Le défi pour Cambo…

Quelle sera, dans la gestion de ce mandat, la stratégie de la commune pour répondre au besoin en logements de sa population? Le groupe NDH est décidé à proposer des pistes de travail et à collaborer avec les élu.e.s de la majorité, pour améliorer au plus vite la situation actuelle de pénurie.

**C.A.P.B : un levier**

L'« agglo » et son entité du pôle Errobi sont une opportunité tant nous sommes convaincu.e.s de la force et la puissance d'un groupe face à l'individualisme. Nous serons acteurs du plan de déplacement urbain par la mise en place du transport à la demande, des mobilités douces (vélo, navette,..) et notamment de l'aménagement de la voix verte de long de la Nive d'Itxassou à Bayonne en passant par Cambo.

**Nos mobilisations**

De récentes décisions du ministre de l'éducation nationale et les coups de canif réguliers dans le développement de l'utilisation de notre langue basque nous a conduit à manifester à Bayonne le 19 octobre. Nous défendons la richesse qu'apportent la diversité des langues territoriales.

Les messages au travers des tags racistes n'ont pas leur place au Pays basque ni ailleurs. Nous sommes aux antipodes de ces « vomissures » fascistes, xénophobes et antisémites. En 24 heures nous avons mobilisé 500 personnes.

Dans le cadre de la journée internationale des violences faites aux femmes, nous avons participé le 25 novembre au rassemblement organisé devant la mairie. Ce doit être une action permanente des élu.e.s pour endiguer ces barbaries.

**Bonnes fêtes à toutes et tous**

Prenez soin de vous et de vos proches et nous espérons que 2021 sera meilleure et synonyme de solidarité, de convivialité et de dynamisme.

## ORORREN ONETAN ARITU

*Zuetarik %47 inguruk NAHI DUGUN HERRIA gure zerrendaren alde bozkatu zenuten eta eskertzen zaituztegu.*

*Gure talde berrituak 2014an hasi lana segitzen du, bere eginkizuna denen onetan eramanez.*

***Covid 19 : Ohartzea***

*Pairatzen dugun krisia honek gure ahulezia eta menpekotasunaz konzientzia harrarazten digu. Indibidualismoa, muga eta axolarik gabeko kontsumoa, mundializazioa, iraganeko idealak dira.*

*Garai zail honek agerian uzten du, gure programaren zutabeak ziren tokiko kontsumo sareak, lur emankorren zaintza, mugikortasun partekatuak, elkarren arteko laguntza eta elkartasuna, funtsezkoak direla. Zenbaitek utopiatzat pasarazi nahi dituzten baloreak, gaur egun krisia gainditzeko tresnak bilakatu dira.*

***Elkartasuna***

*Zuen konfiantzak indarberriturik eta pandemiak denen lana ainitz baldintzatzen badu ere, 7 hautetsiek gure programaren gai nagusiak defendatzen segitzen dugu mandatura berri honetan, ahal dugun bakoitzean gure ikusmoldea eta proposamenak helaraziz.*

*Elkar bizitza helburu, GEUZ-aren administrazio kontseiluan, politika sozial eraginkor bat bultzatzen dugu, gehiengoak nehor ez dezan utz bide bazterrean. Orain arte kantinaren laguntzaren emendazioa, gazte eta haurrentzat aisialdietan parte hartzeko laguntza, urgentziako bizitegia eta herri elkartasun asurantza osagarri bat sortzea galdatu dugu.*

*Bata bestearen ondotik heldu zaizkigu baimen eta debekuak, bainan denek elgarrekin badugu zer egin :*

- *komertsante eta artesauengana joanez, herriko saltegietan erosiz edota tokiko laborantxaren mozkinak lehenetsiz, gure herriaren dinamika eta bizitasuna segurtatuko baitute.*
- *Halaber komitatzen zaituztegu ingurukoei, isolamendua, prekaritatea, edota bortizkeria egoerak bizitzen dituzten emazte ta haurrei erne egoitera, ezaxolakeria baztertzera.*

***Hirigintza Marienia ordokia..***

*Haustekundeak aitzin burutu zen THParen onarpena, Marienia ordokiaren urbanizazioak ihardokitze eta oposizio anitz sortu zituen .*

*Herri sartzeko paisai paregabe eta laborantxako lur hauen babesteko, lau errekurtso aurkeztuak izan ziren auzitegi administratiboaren aitzinean.*

*Jujamendua goaitatu gabe etxe eraikitze proiektu erraldoi bat agertzekotan da… ez dugu amore emanen eta gure ekintza segituko dugu prozeduran honen bidez.*

*Kanbok Desafio bat…*

*Zer izanen da mandatu honen kudeaketan herriaren estrategia jendeen bizitegi beharrei ihardesteko. NDH taldea prest da laneko pista batzuk proposatzeko eta lanean aritzeko gehiengoaren hautetsiekin oraiko eskasia egoera ahal bezain bai lehen hobetzeko.*

***EE : tresna bat***

*Euskal hirigunea eta Errobi gunea bere tokiko ordezkaritza, tresna baliosak dira, zinez sinesten baitugu taldearen indarrari indibidualismoaren aitzinean. Hiri mugitze planoan parte hartzen dugu. Galdatu-garraioa, mugikortasun goxoak (bizikleta, joan-jinkaria ,…) eta besteak beste Kanbotik pasatuz, Itsasutik Baionaraino joanen den Errobi bazterreko bide berde proiektua, bururat eramaiteko lanean ariko gira.*

***Gure mobilizazioak***

*Hezkunde nazionaleko ministroak euskararen erabilpen eta garapenaren kontrako erabaki ak hartu ondoan, Baionako manifestaldian parte hartu dugu joan den urriaren 19an. Herri hizkuntzek ekartzen duten aberastasuna defendatzen dugu.*

*Tag eta pintada arrazistek ez dute tokirik ez Euskal Herrian ez nihun. Jarrera faxizta, xenofobo eta antisemitak gure etsai amorratuak dira. Egun bakarrean 500 jende mobilizatu dira jarrera zikin horien salatzeko. Emazteen kontrako bortizkeria salatzeko eguna kari, azaroaren 25a, jende biltze batean parte hartu dugu herriko etxearen aitzinean. Baitezpadakoa da hautetsiek parte har dezaten bortizkeria menean atxikitzeko ekintzetan.*

***Urte bukaera goxoa desiratzen dizuegu.***

*Zaindu zuen buruak eta zuen ingurukoak. Esperantza atxik dezagun 2021, elkartasun, elkarbizitze eta dinamismo urtea izanen dela.*

Pour nous suivre : http://www.kanbo-nahidugunherria.eu/fr/ ou https://www.facebook.com/NahiDugunHerria/





# RÉUNION DE QUARTIER

La première rencontre avec les habitants du Bas-Cambo a eu lieu le 10 Octobre. Nous avons commencé par un petit aperçu sur les travaux réalisés :

- l'entretien de plusieurs chemins ruraux ;
- la reprise du chemin de Bitoeniako Borda, des bas-côtés de la partie basse de la voie communale d'Arrazalgia ;
- la réalisation de l'aire de jeux avec la mise en place d'une clôture bois en ganivelle pour la fin de l'année.

Nous avons également échangé sur les doléances et souhaits qui nous sont remontés concernant les travaux de voirie des chemins Harizkazuia, Agotia, Agnianeko Borda, de l'école et Burgachiloa

La sécurité a été également évoquée par certains d'entre vous. Nous envisageons la mise en zone 30 de la route d'Halsou entre le pont SNCF et le lavoir, et y englober le centre du Bas-Cambo. Le chemin d'Hiriartia qui est relativement étroit sera mis en sens unique dans le sens Jauretxea-Karrikartea, ainsi que pour le chemin Karrikartea, pour les mêmes raisons depuis le fronton vers le lavoir.

Nous allons diminuer l'intensité de l'éclairage public, et prévoyons de mettre en place un candélabre au passage piéton de l'école pour la sécurité des enfants.

L'achat de deux radars pédagogiques mobiles est envisagé, afin de responsabiliser les conducteurs et emmener tout un chacun à une conduite plus calme.

En soutien à notre service urbanisme, le lourd chantier lié à l'adressage a été confié au bureau Géomatica conformément aux directives strictes de la CAPB.

Nous allons mandater un bureau d'études, afin de solliciter l'accord des services de l'état pour une remise en état du fond du lit du ruisseau, et lui redonner un écoulement normal. Pour autant, les problèmes d'inondation demeureront et nécessiteront une étude hydraulique que nous confierons à la CAPB.

L'amélioration des décorations de Noël est prévue.

L'achat de deux panneaux électroniques d'information est projeté, pour mise en place à proximité de la gare et à l'entrée de la route d'Hasparren.

Une étude est en cours pour envisager un commerce de proximité.

D'autres réunions de quartier vont être programmées courant 2021, vraisemblablement au mois d'avril, juin et septembre en espérant que la crise sanitaire se sera éloignée.





## AUZOKO BILKURA

*Urriaren 10ean egin dugu Behereko Plazako biztanleekin lehen bilkura. Hasteko, egin diren lanak aipatu ditugu:*

- *hainbat landa bideren mantenua,*
- *Bitoeniako Bordako bidearen berriz egitea, eta Arrazalgia bideko behereko bazterrak,*
- *joko eremuaren egitea eta urte hondarrerako ezarriko den zurezko hesia,*

*Halaber, Harizkazuia, Agotia, Agnianeko Borda, Eskolako eta Burgachiloa bideei buruzko eskaerak izan ditugu aipagai.*

*Zuetariko batzuek ere segurtasunaz mintzatu nahi izan dute. Pentsatzen dugu 30 abiadura eremu baten ezartzea Haltsuko bidean, trenbideko zubitik latsagiraino, eta Behereko Plazako erdigunea ere eremu horretan sartuko genuke. Hiriartia bidea, aski hertsia baita, Jauretxea-Karrikartea noranzkoan zentzu bakarrean izanen da, eta gauza bera Karrikatea bidean pilota plazaren eta latsagiaren artean, ber arrazoiengatik.*

*Argiteria publikoaren intentsitatea apalduko dugu, eta eskolako zebra-bidea argiztatuko dugu haurren segurtasuna bermatzeko.*

*Pentsatu dugu ere bi radar pedagogiko mugikor erostea, gidarien oharrarazteko eta jende orok emekiago gida dezan.*

*Helbideratze lanak bidean ditu GEOMATICA bulegoak, Euskal Elkargoko zerbitzuekin lankidetzan, baina badirudi luzerako izanen dela. Pazientziaz har ezazue.*

*Ikerketa bulego bati ikerketa bat galdeginen diogu erreka zolaren garbitzeko (urak behar bezala isur daitezen) frantses estatuaren baimena ukateko. Alabaina, uholde arazoek segituko dute eta horretarako ikerketa hidrauliko bat egin beharko du Euskal Elkargoak.*

*Eguberriko apaindurak ere hobetuko ditugu.*

*Pentsatu dugu ere informazio-panel elektronikoak erostea, lehena tren geltokiaren ondoan ezartzeko, eta bestea Hazparneko errepide sartzean.*

*Beste ikerketa bat bidean da hurbileko saltoki baten plantatzeko.*

*2021ean beste auzo bilkurak eginen dira, segurrenik apirilean, ekainean eta irailean, eta espero dezagun osasun larrialdi egoera pasatua izanen dela.*







# Le Professeur Jacques-Joseph GRANCHER

**Conseiller municipal de la commune de Cambo-Les-Bains à partir de mai 1896, le Professeur Jacques-Joseph GRANCHER fut Maire, du 29 août 1900 au 05 novembre 1905.**

Durant son mandat, il fut à l'origine de la transformation de Cambo et de nombreux travaux et projets : les abattoirs, l'école des filles, l'hôtel des Postes, un jardin public, le réseau téléphonique, l'éclairage électrique, un lavoir, l'installation de fontaines, l'agrandissement du fronton du Bas-Cambo et même la mise en place d'une réglementation de la vitesse des automobiles à …10 km/heure !

C'est un véritable mécénat qu'assumèrent les époux Grancher.

Rappelons combien leur générosité et leur sollicitude envers notre commune furent grandes. Mme Grancher offrit en 1901 à la ville un bosquet où, plus tard, fut aménagé le square Albeniz ; elle fit un don en 1903 de 100 000 francs-or ; elle prit en charge la réfection du mur d'enceinte du cimetière alors situé autour de l'église. En de nombreuses circonstances et très discrètement, ils surent faire bénéficier les plus humbles de leur bonté ; chaque année à l'occasion de sa fête, Madame Grancher offre 500 francs-or au bureau de bienfaisance et réunit pour Noël à "Rosaenia" tous les enfants de la commune en leur offrant des friandises et des cadeaux utiles.

La mémoire de cet illustre personnage, est honorée par son effigie en bronze installée sur l'esplanade face à la vue panoramique dominant les Thermes, le long de l'avenue portant son nom.

Le Docteur Jacques-Joseph GRANCHER, Professeur de Clinique à la Faculté de Paris, membre de l'Académie de Médecine, collaborateur de Pasteur, était à la fin du XIXème siècle, un grand nom de la médecine.

Né le 29 septembre 1843 à Felletin dans la Creuse, fils unique d'un foyer modeste de tailleur, il fit de brillantes études de médecine à Paris malgré des conditions matérielles difficiles. Interne des hôpitaux en 1867, il devint vite et successivement chef de clinique, premier de la promotion des médecins des hôpitaux, puis agrégé de médecine en 1875 à l'âge de trente-deux ans.

Sa notoriété grandit rapidement avec les travaux qu'il mène sur la tuberculose et le 15 mai 1885, il est nommé titulaire de la Chaire des Maladies des Enfants qu'il occupera jusqu'à son décès le 13 juillet 1907.

Il contribuera à Paris, à soutenir et à sauver, grâce à l'indispensable caution médicale qu'il apporte à Pasteur, la découverte du vaccin contre la rage.

Atteint d'une grave pneumonie, le professeur Grancher recherche un climat propre à assurer son rétablissement et arrive à Cambo en 1892. Se sentant bien et se rétablissant, il achète le 8 décembre 1894 les fermes Mignotenia et Legordia pour faire construire, pendant qu'il loue la maison Souberbielle, la villa Rosaenia qui porte le nom de son épouse Rosa. La maison sera achevée en 1897 et servira de cadre à de nombreuses et brillantes réceptions.





## JACQUES-JOSEPH GRANCHER IRAKASLEA

*Jacques-Joseph GRANCHER irakaslea Kanboko herri biltzarkide izan zen 1896ko maiatzetik, eta auzapez 1900eko agorrilaren 29tik 1905eko azaroaren 5era.*

*Bere agintaldian Kanbo bilakarazi zuen, lan eta proiektu ugari eginez: hiltegia, nesken eskola, Posten hotela, loretegi publikoa, telefono sarea, argiteria elektrikoa, latsagia, ur iturriak, Behereko Plazako pilota plazaren handitzea eta... ibilgailuentzako abiadura 10 km orduko abiadurara mugatzea!*

*Grancher bikotea mezenas handia izan zen.*

*Oroit dezagun zein eskuzabalak eta emanak izan ziren gure herriari. 1901ean Grancher andereak oihan txiki bat eskaini zion herriari, gerora Albeniz parkea izanen zena; 1903an 100 000 franko-urre eman zituen; garai hartan eliza inguruan zen hilerriaren harresiaren eraberritzea berak ordaindu zuen; behin eta berriz, beti diskretuki, beharretan zirenak laguntzen zituzten; urtero, ongiegileen bulegoaren besta kari 500 franko-urre eskaintzen zituen eta Eguberriz "Rosaenian" herriko haur guziak biltzen zituen goxokiak eta jostailu baliagarriak eskainiz.*

*Pertsonaia aipagarri horren oroimenez brontzezko busto bat dago ezarria Termen gaineko ikuspegi panoramikoan, bere izena duen etorbidean.*

*Jacques-Joseph GRANCHER irakaslea, Pariseko Fakultateko klinika Irakaslea, Frantziako Medikuntza Akademiako kide eta Pasteur-en lankide. XIX. mende bukaeran medikuntzaren izen ospetsuenetako bat zen.*

*1843ko irailaren 29an sortu zen Frantziako Creuse eskualdeko Felletin herrian. Jostun familia xume bateko seme, ikasketa ederrak egin zituen Parisen, nahiz eta baldintza material gogorrak izan. 1867an ospitaleetako mediku-gai izan eta, laster klinika buruzagi, gero ospitaleetako medikuen promozioko lehena eta ondotik 1875ean medikuntza agregazioa eskuratu zuen hogeita hamabi urte zituelarik.*

*Ospe handia hartu zuen tuberkulosiari buruzko ikerketei esker, eta 1885eko maiatzaren 15ean Haur Eritasunen Katedradun izendatua izan zen, eta hor segitu zuen 1907ko uztailaren 13an zendu zen arte.*

*Parisen zegoenean, Pasteur-i ematen zion mediku bermeari esker, errabiaren kontrako txertoaren aurkikuntza lagundu eta salbatu zuen.*

*Pneumonia azkarra harrapatu eta, Grancher irakaslea 1892an iritsi zen Kanbora, klima atseginago baten bila zebilela. Hemen laket sentitzen baitzen eta osasuna ere hobetzen ari baitzitzaion, 1894ko abenduaren 8an Migotenia eta Legordia etxaldeak erosi eta Rosaenia etxea eraiki zuen (bere emaztearen izenekoa). Denbora horretan, Souberbielle etxean bizi izan zen. Etxea 1897an bukatu zuten eta maiz ekitaldi ederrak antolatzeko baliatu zuten.*

*Gero, 1900ean bi gertakari nagusi izan ziren: Edmond Rostand-en heltzea eta Grancher irakaslea auzapez izendatua.*

*Badakigu Edmond Rostand-ek pleuresia larria harrapatu zuela "L'Aiglon"-en errepikak egitean eta horren ondorioz birikak kaltetuak izan zituela. Pozzi, kirurgilari ospetsuak ebakuntza proposatu zion. Baina, Rostand-en ingurukoei Grancher irakaslea ekarraraztea bururatu zitzaien, ospe ikaragarria baitzuen. Irakasleak ez zuen ebakuntza onetsi eta Kanbora egonaldi baten egitea gomendatu zion, bera ere gaitzetik sendatu baitzen hemen. Segida ezaguna dugu….*